

Gure zalantzek eta galderek baino ez zuten kontakizuna eteten. Gizon handia zen Aitite Ramón. Txiki txikitatik bizitza gogorra eta beti irribarrea ahoan zuena. Goitik-beherako gizon zintzoa. Jende gutxi duen xarma zuena.

Bat-batean jeinuak besoen artean hartu ninduen eta belarrira hitz batzuk xuxurlatu zizkidan.

– Nondik hasi topatu duzu, ezta? Banoa, orduan...

Eta besoen artean estututa etorri zen moduan egin zuen alde. Berehala atzamarrak dantzan hasi, eta buruak agindutako izenburua idatzi zuten.

Bere apaltasunean handia.

Aititeri buruzko ipuina bukatu arte ez nuen ordenagailutik begirik altxatu, lehenengo zirriborro antzeko bat egin nuen, geroxeago aldaketa batzuk, eta azkenean osotasuna eman nion ipuinari. Harro nengoen egindako lanaz.

Aitite hil zenetik ez naiz errautsak bota genituen labarrera bueltatu, baina barruko zerbaitek bultzatuta kotxea hartu eta haraino eraman ninduen.

Mundakako Santa Katalina baselizaren labarraren ertzean etxean inprimatutako orriak aititerekin partekatu nituen airera botata. Haize bortitzak hegan eraman zuen ipuina itsasora. Euri tantek hezurretaraino busti ninduten, hotsak gorputza uzkuritu. Hala ere, bularrean epeltasun atsegina nuela egin nuen bueltako bidea. Egun euritsua eta hotza zen. Domu Santu eguna.

• • • • •
“Jeinuaren zirikada”
Jon Txasko Meabe
44 urte – Derio
2012 – E kategoria
1. saria
• • •